

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4100

AGINDUA, 2012ko irailaren 12koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakariaren izendapena ezeztatzeko dena.

2012ko uztailaren 6an, Osasun eta Kontsumoko sailburuak bi agindu eman zituen, zeintzuekin, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakaria kargutik kentzen zen, eta, bestetik, lehendakari berria izendatzen zen.

Izapideketa-huts baten ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakariaren izendapena 2012-09-07an argitaratu zen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian; alde zurretik ordura arteko lehendakariaren kargu uztea argitara eman barik.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakaria izendatzeko 2012ko uztailaren 6ko Agindua, zehazki, EHAren 2012-09-07ko 175. zenbakian argitaratua ezeztatu egiten da.

Horregatik, honakoa

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2012ko uztailaren 6ko Agindua, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakaria izendatzeko dena ezeztatu egiten da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau 2012ko irailaren 7an sartzen da indarrean, atzeraeraginezko ondorioekin.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 12a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.